



## BAHIKETA

Asel Luzarraga

2020  
IRAILA

Buenos Airesko *La Hoz* egunkarian luzetsita daude, Matxinen artikulua iristen ez delako. Ez artikulua, ez Matxin bera. Haren inguruko berririk ez dagoela jabetzean, alarmak piztu zaizkio Eduri, lagun mina baitu; Euskal Herriatik ihesi alde egin zuenean, Matxinek lagundu zion Argentinara. Bizi-bizi ari da Eduren burua, arriskuak ez baitira gutxi: ultra-eskuinak bahituko al zuen laguna, edo zerbitzu sekretuek? Nongotarrak, baina? Edo Euskal Herrira itzultzea erabaki ote du, berari ezer esan gabe? Sortuz gero inoiz desagertu ez diren beldurrak, mamuak, kontzientzia txarra, eldarnioak... Guztiak hasi dira dantzan Eduren baitan, bizitokiaren eta sorterriaren, iraganaren eta orainaren, errealitatearen eta fantasiaren arteko espiral zoro batean. Bahituta nor edo zer egon den ez jakiteraino.

### ELEBERRIA

ISBN: 978-84-18252-19-8

ORRIALDEAK: 152

FORMATUA: 12 x 19

PREZIOA: 15,00 €

“Kontzientzia txarraz, beldurrak, traizio txikiez, auto-gorrotoaz, oroimenaren ahuleziaz, ihes egiteaz eta gure ingurukoengan proiektatzen ditugunez hitz egin nahi nuen, besteak beste; beti ez baita fidagarria pertsona batek bere lagun minaz duen irudia.”

Asel Luzarraga



#### Asel Luzarraga

(Bilbo, 1971))

Enpresa ikasketetan diplomaduna eta Euskal Filologian lizentziaduna da. Hainbat urtez irakasle jardun ostean, egun itzultzaile dabil. 2003. urtean *Hamaika ispilu ganbil* argitaratzeak eta VI. Igartza beka eskuratu izanak idazketa serio hartzera bultzatu zuten. Geroztik, eleberrri hauek argitaratu ditu: *Karonte*, *Mozorroaren xarma*, *Abaraska*, *Utopiaren itzalak*, *Gezurra odoletan*, *Bioklik* eta *Inoren munduan*. Musikan ere aritu da, Punkamine eta Trio Ternura punk taldeetan.

### EGILEA TXALAPARTAN

